

GAMON

Aspaldiko lagun talde bat elkartu ginen eta Zarauzko ostalaritzari buruz hitz egiten ari ginela konturatu ginen ez zegoela horrelako ezer.

Aurrezkiak genituenez ideia aurrera eramatea erabaki genuen. Gure tabernan, Beñat sukaldaria izango da; Aitor banatzailea; Jon Ander marketing eta diru kontuetan ibiliko da; Mikel zerbitzaria izango da eta Ander tabernako barran egongo da.

Guk jatetxe bat irekitzea erabaki dugu, bertan, hilabetero leku desberdinetako janaria eskainiko dugu, horrez gain, hilabetean behin behartsuentzat janaria doan emango dugu eta kontzertu ezberdinak antolatuko ditugu.

BALIO PROPOSAMENA

Gure taberna, guztiz fidagarria, merkea eta garbia izango da. Munduko toki ezberdinetako janaria egingo dugu. Horrelako jatetxe gutxi ikusten dira. Hilabetean behin behartsuei bazkaria doan emango diegu, ondo joan ezkeroko egun gehiagotan egingo dugu. Materia prima km 0 izango dute. Jatetxeko lankide denek euskaraz hitz egiten dugu, jatetxearen kokapena zein den jakinda, udarako kanpotar kopurua handitzen denez ingelesa ere erabiliko dugu gure menuaren kartan. Jatetxe barruan kontzertuak emango ditugu momentuko gaiaren arabera.

BEZEROAREN SEGMENTAZIOA

Guk pentsatzen dugunez, 16-50 urte bitarteko bezeroak, langabezia eta behartsu diren pertsonak etorriko direla gure tabernara. Adin hortakoak etorriko direla pentsatzen dugu zeren eta jende zibilizatua baita.